“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO de este mes, relativa al informe de impacto sobre el genero en el expediente de la MPGOU AL.17 Esnabide.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes, el Pleno aprobó definitivamente (con el voto en contra nuestro) la modificación del Plan General referida al ámbito AL.17 Esnabide.

En el día del Pleno, en materia de informe sobre impacto en función del genero, lo que

inpaktuari dagokionez:

• udal arkitektoaren txosten bat (2019/01/17koa);

• Berdintasun Saileko teknikari bati zuzendutako eskabide formal bat (2019/01/31koa), udal arkitektoarena, "dokumentuan jasotako eta egindako ebaluazioa egiaztatzeko eta baliozkotzeko".

Espedientea behin betiko onartu zen, eskatutako Berdintasun Sailaren txostena bildu gabe. Udalbatzarrean bertan, idazkariari galdetu genion zuzena ote zen Plan Orokorraren aldaketa hori onartzea, esandako txostena bildu gabe. Erantzun zuen ez zitzaiola zuzena iruditzen.

Are gehiago, Berdintasun Sailak, jakinik Udalbatzarra elkartu baino lehenago zeukala taxutu beharra txostena, ahalegina egin zuen ezarritako epea baino lehenago prestatzeko, eta 2019/02/12an egin zuen txostena; hau da, Udalbatzarra baino bederatzi egun lehenago. Halere, Udalbatzarraren ostetik gaineratu da espedientean. Zehazki, 2019/02/25ean.

Oso larria da txostena behin-betiko onarpenaren ostean gehitzen uztea. Baliteke talde politikoek proposamen baten aldeko botoa ematea, espedienteari gerora gaineratutako txostenen edukiaren berri izan gabe. Ondorioz, edonork dokumentazioa eta izapidetzea berrikusiz gero, ondoriozta lezake alderdi politikoek txosten guztien berri izan ostean eman dutela aldeko botoa, baina ez da hala izan.

Nabarmendu behar da agiri horrek arkitektoaren txostenaz bestelako ondorioak jasotzen dituela: "Esandako txostena berrikusi ondoren, Berdintasun Unitateak uste du baietz,

constaba en el expediente era:

• un informe (del 17/01/2019) del arquitecto municipal.

• una petición formal (del 31/01/2019) dirigida a una técnica del Departamento de Igualdad "con el fin de que se verifique y valide la evaluación de impacto contenida y realizada en el documento" del arquitecto municipal.

El expediente se llevó a aprobación definitiva sin la inclusión del informe del Departamento de Igualdad pedido. En el propio Pleno, preguntamos al Secretario si era correcto llevar a aprobación esa modificación del Plan General sin que se haya incorporado dicho informe. Contestó que no lo consideraba correcto.

Es más, el Departamento de Igualdad, consciente de que tenía que realizar su informe antes del tratamiento en Pleno, hizo el esfuerzo de redactarlo dentro del plazo impuesto, y realizó ese informe el 12/02/2019, es decir 9 días antes del Pleno. Sin embargo se ha incluido en el expediente después del Pleno. Concretamente el 25/02/2019.

Permitir la inclusión de informes después de la aprobación definitiva es algo muy grave. Los grupos políticos podrían votar a favor de una propuesta sin conocer el contenido de informes añadidos posteriormente al expediente. En consecuencia, si cualquiera revisa la documentación y la tramitación, podría concluir que los grupos políticos han votado a favor con conocimiento de todos los informes, cuando no es el caso.

Cabe señalar que este informe llega a conclusiones distintas al informe del arquitecto y dice: "Revisado dicho informe, la Unidad de Igualdad considera que sí tiene relevancia

garrantzia duela generoaren ikuspegitik". Konpondu beharreko hainbat auzi planteatzen ditu, proposatutako aldaketak ez dezan eraginik izan generoaren funtzioan.

desde el punto de vista de género". Plantea varias cuestiones que deben ser resueltas para que se pueda concluir que la modificación planteada no tenga impacto en función del género.

Aurreko Udalbatzarrean eta batzordean, azaldu zen Berdintasun Sailaren txostena ez dela legez nahitaezkoa, eta, Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako instrukzio baten faltan, ez dagoela arauzko betebeharrik txostena espedienteetan jasotzeko.

En el anterior Pleno y en comisión se explicó que legalmente el informe del Departamento de Igualdad no es obligatorio, y que a falta de una instrucción aprobada por la Junta de Gobierno Local, no hay obligación normativa de incorporar el informe a los expedientes.

Laburbilduz: Berdintasun Sailari eskatu zaio generoaren araberako inpaktuari buruzko balioespen bat egiteko, epe barruan eta forma zainduta egin du, Plan Orokorra behin betiko aldatzea galarazten duten hainbat auzi planteatu ditu, ez da espedientean txertatu, idazkariaren irizpidearen kontra onartu da, eta Udalbatzarrak onartu ostean gaineratu da txostena espedientera. Astakeria astakeriaren gainean.

Concluyendo: se pide al departamento de Igualdad hacer una valoración sobre el impacto en función del género, la hace en tiempo y forma, plantea cuestiones que impiden aprobar definitivamente la modificación del Plan General, no se incluye el informe al expediente, se procede a la aprobación contra el criterio del Secretario, y se incluye el informe una vez realizada la aprobación en Pleno. Un despropósito tras otro.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari, gauza ditzala Berdintasun Sailaren txostenak egiten dituen gomendioak eta azterketak, eta jardun dadila lortutako emaitzek diotenarekin bat.

2. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari, onar ditzala lehenbailehen generoaren araberako inpaktuaren aldez aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideak.

3. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari, udal sail edo entitate baten txosten bat eskatzen den garaian hirigintza espediente baten garapenaren esparruan, itxaron dezala eskuratu arte, espedientea

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a llevar a cabo las recomendaciones y estudios que plantea el informe de la Sección de Igualdad, y que se actúe en consecuencia con los resultados que se obtengan.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a aprobar cuanto antes las Instrucciones para la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, cuando pide un informe de algún departamento o entidad municipal en el marco del desarrollo de un expediente urbanístico, espere a tenerlo

onartu aurretik.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldearen zinegotzia”.

antes de llevar el expediente a aprobación.

Donostia a 15 de Marzo de 2019

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Ricardo Burutaran Ferré y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.1.3. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Berdintasunerako Ordenantzari buruzkoa.**

“Amaia Martin Garin Irabazi Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluarekin bat, Berdintasunerako Ordenantzari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN Batzordean hil honetan egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

**II.1.3. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la ordenanza de igualdad.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS A LAS PERSONAS del presente mes, relativa a la ordenanza de igualdad.

JUSTIFICACIÓN

Hil honetako Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean, interpelazio bat aurkeztu genuen jakiteko zergatik Udal Gobernuak ez zuen betetzen azaroaren 22 onartutako mozioa. Hala zioen mozio horrek:

1.- Donostiako udalbatzak eskaera egiten dio udal Gobernuari dagozkion izapideak abian jar ditzan, legealdi hau amaitu baino lehen, Donostiako Udaleko berdintasun ordenantza onar dadin.

Interpelazioa alkate jaunari egin genion, baina Berdintasuneko zinegotzi ordezkariak erantzun zigun. Haren erantzuna izan zen, mozioa onartu zenez gero, Idazkaritzari helaraziko ziotela, Berdintasunerako Ordenantza onartzeko izapideak egiten has zedin. Zinegotziak erabilitako aditz-denbora (geroaldia) azpimarragarria da, argi uzten baitu Udal Gobernuak ez duela inolako borondate politikorik udal honek Berdintasunerako Ordenantza bat izateko.

Lau hilabete igaro dira mozioa onartu zenetik, eta ziur dakigun gauza bakarra da martxoaren 11n, hau da, hiru hilabete eta 17 egun geroago, oraindik ez zitzaiola Idazkaritzari helarazi, beharrezko izapideak egiten has zedin.

Zinegotzi ordezkariak udal gobernu honek berdintasunari ematen dion garrantziaz esandako hitzek ez dute balio handirik, gertakariek salatu egiten baitute benetan duen jarrera: ez du ezertxo ere egin Udalbatzak 2018ko azaroaren 22an erabaki zuena betetzeko.

Hori dela eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

En la comisión de Servicios a las Personas del presente mes, interpelamos sobre las razonas por las que el gobierno municipal no cumplía la moción aprobado por el Pleno el 22 de noviembre, en la que se pedía lo siguiente:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, insta al gobierno municipal a iniciar los trámites oportunos para que, antes de que finalice la presente legislatura, se apruebe la ordenanza de igualdad del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

Dirigimos la interpelación al Sr. Alcalde, si bien fue respondida por la concejala delegada de Igualdad. Su respuesta fue que, dado que la moción había sido aprobada, ésta iba a ser trasladada a Secretaría para la puesta en marcha de los trámites para la aprobación de una ordenanza de igualdad. Destacamos el tiempo verbal (futuro) utilizado por la concejala, ya que deja a la vista claramente que este gobierno municipal no tiene ninguna voluntad política de que este ayuntamiento cuente con una ordenanza de igualdad.

Han pasado cuatro meses desde que se aprobó la moción citada, y lo único que sabemos con certeza es que el día 11 de marzo, esto es, tres meses y 17 días después, no había sido todavía trasladada a Secretaría para el inicio de los trámites oportunos.

De poco sirven las palabras de la concejala delegada en relación a la importancia que este gobierno municipal otorga a la igualdad, porque los hechos le delatan: no ha hecho nada de nada de lo que acordó el Pleno el día 22 de noviembre de 2018.

Es por ello, por lo que presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, hil hau amaitu baino lehen, beharrezko izapideak egiten hasteko, 2018ko azaroaren 22an onartutako mozioa bete dadin eta, hala, Donostiako Udalak Berdintasunerako Ordenantza izan dezan.

Donostia, 2019ko martxoaren 15a

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea".

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a que inicie los trámites oportunos antes de final del presente mes para dar cumplimiento a la moción aprobada el 22-11-2018 de manera que este Ayuntamiento cuente con una ordenanza de igualdad.

Donostia a 15 de Marzo de 2019

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Naiara Sampedro Perez andreak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Naiara Sampedro Pérez y D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.1.4. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Uliako Kudeaketa Planari eta Bateragarritasun Planari buruzkoa.**

**II.1.4. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre el Plan de Gestión y el Plan de Compatibilización de Ulia.**

"Loïc Alejandro jaunak, Irabazi Donostia udal taldearen zinegotziak, Udalbatzarraren Erregelamendu Organikoaren 98. artikuluarekin bat, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetako LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz, Uliako Kudeaketa Planaren inpaktuari buruzko txostenarekin loturik.

"Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO de este mes, relativa al informe de impacto sobre el Plan de Gestión de Ulia.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Donostiako Udalbatzarrak honako kontrol mozio hau onartu zuen aho batez 2018ko maiatzean:

El Pleno municipal del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, en mayo de 2018, aprobó por unanimidad la siguiente moción de control:

1. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal gobernuari ipin dezala jendaurrean, ahalik eta bizkorren, Ulia mendiaren Kudeaketa Plana.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a someter a exposición pública, a la mayor brevedad, el Plan de Gestión del monte Ulia.

2. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal gobernuari onar dezala, ahalik eta bizkorren, Ulia Parkearen Bateragarritasun Plana.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal aprobar con la mayor urgencia el Plan de Compatibilización del Parque de Ulia.

3. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal gobernuari, Bateragarritasun Planak adieraz/isla dezala, argi eta garbi, esparru horretarako hiri inguruko parke izaera, eta herritar guztiek izan dezatela aukera ingurune natural hura bakean gozatzeko.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que el Plan de Compatibilización manifieste/refleje de manera inequívoca el carácter de parque periurbano para ese ámbito, dirigiendo los usos en el mismo al disfrute pacífico por la ciudadanía de este entorno natural.

4. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal gobernuari jakinaraz diezaiola akordio hau Pasaiako Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a notificar este acuerdo al Ayuntamiento de Pasaia y a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2018ko maiatzean, ikusirik Bateragarritasun Planaren izapidetzeak nahikoa denbora hartuko zuela, Ulia mendiaren erabilerak

En mayo de 2018, puesto que la tramitación del Plan de Compatibilización iba a durar bastante tiempo, para poder ordenar los usos del monte

bizkorrago antolatzeko, gobernuak batzordean aipatu zuen Ulia mendiaren Kudeaketa Plana idazten ari zirela eta handik hilabetera egongo zela prest.

Ia urtebete igaro ostean, hil honetan batzordean zera ikusi genuen:

• Pasaiako Udalak azkenik egin duela Bateragarritasun Planari dagokion lanaren zatia, eta orain informazio aldi bat hasiko dela, Donostiako Hirigintza Sailak informazioa eman dezan, Pasaiak eskatuta bezala.

• Ez da izan aurrerapenik batere Kudeaketa Planaren inguruan, eta Bateragarritasun Planak ezartzen duenaren arabera egingo da Kudeaketa Plana.

Ondorioztatu genuen amaituta behar zuela 2018ko ekainerako, baina oraindik ez da hasi ere egin: ez daukagu kudeaketa planik Uliarako.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari idatz, onar eta ipin dezala jendaurrean, bi hilabeteko epean, Ulia mendiaren Kudeaketa Plana.

2. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari onar dezala, ahalik eta bizkorren, Ulia mendiaren Bateragarritasun Plana.

3. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari eska diezaiola erabateko laguntza Pasaiako Udalari, Ulia mendiaren Bateragarritasun Planaren espedientean.

Ulia de forma más inmediata, el Gobierno comentó en comisión que se estaba redactando el Plan de Gestión del monte Ulia y que estaría finalizado un mes después.

Transcurrido casi un año, este mes en comisión pudimos aprender que:

• el municipio de Pasaia ha finalmente realizado su parte del trabajo en cuanto al Plan de Compatibilización, y que se abre ahora una fase para informar, desde del Departamento de Urbanismo de Donostia, lo que ha mandado Pasaia.

• no ha habido avance alguno sobre el Plan de Gestión, y en función de lo que establezca el Plan de Compatibilización, se realizará el Plan de Gestión.

Concluimos que lo que debíamos tener finalizado para junio de 2018, todavía no se ha empezado: no tenemos Plan de Gestión para Ulia.

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a redactar, aprobar y someter a exposición pública, en un plazo de dos meses, el Plan de Gestión del monte Ulia.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a aprobar con la mayor urgencia el Plan de Compatibilización del monte de Ulia.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a pedir colaboración total al Gobierno local del Ayuntamiento de Pasaia en el expediente del Plan de Compatibilización del monte de Ulia.

| | |
|---|---|
| Donostian, 2019ko martxoaren 15ean | Donostia a 15 de Marzo de 2019 |
| Sinatua: Loïc Alejandro,<br>Irabazi Donostia udal taldearen zinegotzia". | Fdo.: Loïc Alejandro<br>Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia". |

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Ane Oyarbide Ochoa andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Ricardo Burutaran Ferré y D.ª Ane Oyarbide Ochoa, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**4. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**ONARTUA.**<br>**GEHIENGOA.**<br>**ALDEKO BOTOAK: 21 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**<br>**AURKAKO BOTOAK: 0.**<br>**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**APROBADO.**<br>**MAYORÍA.**<br>**VOTOS A FAVOR: 21 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**<br>**VOTOS EN CONTRA: 0.**<br>**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.** |

**4. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**BAZTERTUA.**<br>**GEHIENGOA.**<br>**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**<br>**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**<br>**ABSTENTZIOAK: 0.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**RECHAZADO.**<br>**MAYORÍA.**<br>**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**<br>**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**<br>**ABSTENCIONES: 0.** |

**4. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.1.5. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, kontratazio publikoaren behatoki bat sortzeari buruzkoa.**

"Amaia Martin Garin Irabazi Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, azpikontratazio publikoaren kontrolari eta kudeaketa onari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetan OGASUN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Udala hiriko enpresarik handiena da, bai sortzen duen enplegu zuzenagatik, bai bere eskumeneko zerbitzuak emateko kontratuen bidez sortzen duenagatik. Errealitate horretatik abiatuta, beharrezkoa da enpresekin, langileen ordezkariekin eta zerbitzu horiek eskaintzen dituzten pertsonekin harreman arinak izateko beharrezko mekanismo guztiak ezartzea, kalitate handiko zerbitzu publikoak bermatzeko, lan-eskubideak errespetatzea ahaztu gabe. Lehentasunezko betebeharra da Udala abangoardia izatea lan baldintza duinak betetzeari dagokionez, bai zuzeneko langileen kasuan, bai azpikontratatuta egonda, zerbitzu

**II.1.5. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA para la creación de un observatorio de la contratación pública.**

"Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de HACIENDA del presente mes, relativa al control y buena gestión de la subcontratación pública.

JUSTIFICACIÓN

El ayuntamiento es la mayor empresa de la ciudad, tanto por el empleo directo como por el empleo que genera a través de los contratos para la prestación de servicios de su competencia. Partiendo esta realidad, es preciso establecer todos los mecanismos necesarios que permitan mantener un diálogo fluido con empresas, representantes de trabajadoras y el colectivo de personas que ofrecen tales servicios al objeto de garantizar servicios públicos de calidad y donde se respeten los derechos laborales. Es prioritario que el ayuntamiento sea vanguardia en el cumplimiento de unas condiciones laborales

publikoa ematen dutenen kasuan.

dignas tanto para los empleados directos como para los trabajadores que, estando subcontratados, están proporcionando un servicio público.

Azken lau urteotan, azpikontratazioetan, obra publikoetan eta/edo Udalarentzat eta/edo mendeko erakundeentzat zerbitzu bat ematen ari ziren enpresetan izandako lan-gatazkak direla eta, administrazioak gogoeta egin beharko luke zerbitzu publiko bat ematen nahiz Udalarentzako azpi-kontrata baten bidez lan egiten duten pertsonen lan-baldintzen gainean duen kontrolari buruz.

En estos últimos cuatro años, los conflictos laborales en subcontratas, en obras públicas y/o en empresas que estaban llevando a cabo un servicio para el ayuntamiento y/o entidades dependientes deben de llevar a la administración a reflexionar sobre el control que se lleva a cabo sobre las condiciones laborales de las personas que trabajan ofreciendo un servicio público o a través de una subcontrata para el ayuntamiento.

Hona adibide batzuk, ugari dira eta: etxez etxeko laguntza zerbitzua edo eraikin publikoak garbitzekoa. Biotan gehienbat emakumeek lan egiten dute, eta biotan langileek udal gobernuari eskatu diote esku hartzeko beren lan-eskubideen urraketa dela eta. Bestalde, Anoetako obretan ez dira bete bete beharreko arau edo baldintza asko, eta behin eta berriz gertatu da hori gainera, lan-ikuskaritzak berak egiaztatu duenez; besteak beste, 4 milioi euro baino gehiago zor dizkiete langileei. Eta konponbidea huskeria den isun bat jartzea izan da. Azken kapitulua: Kontxako noria, beharrezko segurtasun-neurriak hartu gabe desmuntatua. Kasu horiek guztiek berretsi egiten dute egungoak baino kontrol-mekanismo hobeak behar direla.

Los ejemplos se suceden: el servicio de la ayuda domiciliaria o el de la limpieza de edificios públicos, en ambos casos ocupados mayoritariamente por mujeres, las trabajadoras han exigido al gobierno municipal una actuación frente a la vulneración de sus derechos laborales. Los incumplimientos reiterados en obras como la de Anoeta, certificados por la propia inspección de trabajo, que acumulan deudas de más de 4 millones de euros a sus trabajadores, se hayan saldado con una multa irrisoria; o el último capítulo, de la noria en la Concha, desmontada sin las medidas de seguridad correspondientes, vienen a corroborar la necesidad de mecanismos de control mejores que los actuales.

Hil honetako Ogasun Batzordean, ordezkariak adierazi zuen, bere iritziz, aipatutako lan-gatazkak ez zirela inola ere azpimarragarriak. Harrigarria iruditzen zaigu iritzi hori, kontuan hartuta lan-segurtasun faltak eta lan-baldintzak ez betetzeak zerbitzu horietan aritzen diren langileengan duten eragina, ordutegiei eta soldatei dagokienez. Ondorioz, zerbitzu publikoaren kalitateari ere erasaten diote.

En la comisión de Hacienda del presente mes, el delegado consideró que los citados conflictos laborales, no eran en absoluto reseñables, algo llamativo teniendo en cuenta las consecuencias que provoca la falta de seguridad laboral, los incumplimientos de las condiciones laborales, en cuanto a horarios y salarios para las trabajadoras de tales servicios, y en consecuencia, en la calidad del servicio público.

Harrigarria da, halaber, Udalak zerbitzu publikoak zuzenean kudeatzeko erantzukizuna izan arren, azpikontratatu ez ezik, ez ezartzea enpresekin eta, batez ere, aipatutako zerbitzuak ematen dituzten langileekin harreman arinak izateko beharrezko mekanismoak.

Es sorprendente igualmente, que el ayuntamiento a pesar de tener la responsabilidad de gestionar de forma directa los servicios públicos, no sólo subcontrate sino que además no establezca los mecanismos necesarios para mantener un diálogo fluido con empresas y sobre todo trabajadoras que desempeñan los citados servicios.

Hori dela eta, honako kontrol mozio hau aurkezten dugu:

Es por ello, por lo que presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Kontratazio Publikoaren Behatokiaren sorrera bultzatzeko. Kontsulta-organoa izango litzateke eta, haren bidez, talde politikoek, gizarte-eragileek eta sindikatuek parte hartuko lukete zerbitzu publikoen kontraten segimenduan. Horrela, argiago geldituko litzateke zer baldintzatan gauzatzen diren horrelako kontratuak eta hobeto kontrolatuko litzateke hirian ematen diren horrelako zerbitzuen kalitatea.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a impulsar la creación de un Observatorio de la Contratación Pública, órgano consultivo en el que participen grupos políticos, agentes sociales y sindicales en el seguimiento de las contratas de servicios públicos con el fin de hacer más transparentes las condiciones de ejecución de esos contratos y controlar la calidad de su prestación en la ciudad.

Donostia, 2019ko martxoaren 15a

Donostia a 15 de Marzo de 2019

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea".

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Ricardo Burutaran Ferre jauna, Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D.ª Amaia Martín Garín, D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.1.6. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, herritarrek hirigintza proiektuak definitzen izan beharreko inplikazioari buruzkoa.**

“Loïc Alejandro jaunak, Irabazi Donostia udal taldearen zinegotziak, Udalbatzarraren Araudi Organikoaren 98. artikuluarekin bat, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetako LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz, Txomin auzo berriko Arteleku plazaren diseinuarekin loturik.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 26an irten zen komunikabideetan Txomin auzoko Arteleku plazarako aurreikusitako diseinua. Lanberri bizilagunen elkarteak uste du ez dela egin inolako partaidetza prozesurik, Arteleku plazan ekipamendu horren konponbidera iristeko.

Albisteak eta udal gobernuak berak aipatzen duten partaidetza prozesua zera izan zen, uda partean 10 egunez Udalak antolatutako ideien lehiaketako 14 proiektuak erakusgai ipintzea bakarrik, jakinik aukeratuta zegoela irabazi zuen ideia. Erakusketa hartan, hainbat iradokizun jaso ziren paperean, eta, ondoren,

**II.1.6. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre la implicación de la ciudadanía en la definición de los proyectos urbanísticos.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO de este mes, relativa al diseño de la plaza Arteleku en el nuevo barrio de Txomin.

JUSTIFICACIÓN

El 26 de febrero, salió en los medios el diseño previsto para la plaza Arteleku de Txomin. Desde la asociación de vecinos Lanberri consideran que no se ha producido ningún proceso de participación para llegar a esta solución para el equipamiento de la plaza de Arteleku.

El proceso participativo, al que se hace mención en las noticias y desde el Gobierno, se limitó a la exposición, durante 10 días en el verano, de los 14 proyectos del concurso de ideas organizado por el Ayuntamiento, cuando ya se había seleccionado la idea ganadora. Durante la exposición, se recogieron

tailer batean komentatu ziren; bertan, jasotako hainbat ideia azaldu zituzten. Adibidez: "lorategien protagonismoa", "plaza irekia", "hainbat erabilera eta ekitaldi", "estalitako haur parkea"…

sugerencias en papel que posteriormente fueron comentadas en un “taller” en el que se expusieron algunas de las ideas recogidas, por ejemplo: "protagonismo de jardines", "plaza diáfana", "diferentes usos y eventos", "parque infantil cubierto"…

Udal gobernuak, batzordean, adierazi zuen hain justu ideien lehiaketa guztia auzotarren iritzia kontuan hartu gabe egin zela, proposamenen erakusketara arte. Baina orain, Arteleku urbanizazioa egikaritze-proiektua idazteko fasean sartu denean, pleguetan zera estipulatzen da: proiektuak herritarren ekarpenak errespetatu behar dituela eta talde esleipendunak udalarekin eta auzotarrekin batera lan egin beharko duela.

En comisión el Gobierno comentó que efectivamente todo el proceso de concurso de ideas, hasta la exposición de las propuestas, se hizo sin contar con el vecindario. Pero que ahora la urbanización de la plaza Arteleku entra en una fase de redacción del proyecto de ejecución, y que en los pliegos se estipula que el proyecto deberá respetar aportaciones ciudadanas y que el equipo que salga adjudicatario deberá trabajar con el Ayuntamiento y los y las vecinas del barrio.

Positiboa deritzogu esleipenerako eskakizun horiek txertatzeari, baina positiboa izango zen, era berean, lehenagotik sustatzea herritarren partaidetza, ideien lehiaketa prozesutik bertatik. Hala, 14 proposamen horiek jasoko zituzten bizilagunen oharrak, eta, batez ere, auzotarrenak, Lanberri elkartearenak kasu. Hala, hasiera-hasieratik sentituko ziren partaide.

Nos parece positivo incluir esos requisitos para la adjudicación, pero habría sido también positivo promover la participación ciudadana aguas arriba, desde el proceso de concurso de ideas. Así, las 14 propuestas habrían podido incluir ya las observaciones del vecindario, y sobre todo la gente que vive en el barrio, así como la asociación de Lanberri, habrían podido sentirse participes desde el principio.

Gure ustez, hirigintza proiektu batean, herritarrei zuzenean eragiten dien aldetik –dela haien jabetzek edo jarduerek eragin zuzena jasotzen dutelako, dela espazio publikoa berritzen edo sortzen delako– hasierako puntuak zera izan behar du: bizilagunekin bilera bat egitea, proiektuan parte hartzeko modalitateak definitzeko.

Consideramos que en un proyecto urbanístico que tiene incidencia directa en el vecindario, bien porque sus propiedades o actividades se ven directamente afectadas, bien porque se crea o reforma del espacio público, el punto de partida debe ser una reunión con el vecindario para definir las modalidades de participación en el proyecto.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari, egin dezala bilera bat bizilagunekin, bizilagunei zuzenean eragiten dien hirigintza proiektu bat abiarazten denean

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, cuando se plantee un proyecto urbanístico que tiene incidencia directa en el

(dela haien jabetzek edo jarduerek eragin zuzena jasotzen dutelako, dela espazio publikoa berritzen edo sortzen delako), proiektuaren abiapuntu gisa.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldearen zinegotzia".

vecindario (bien porque sus propiedades o actividades se ven directamente afectadas, bien porque se crea o reforma del espacio público), organice una reunión con el vecindario como punto de partida del proyecto.

Donostia a 15 de Marzo de 2019

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Ricardo Burutaran Ferré y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.1.7. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Marrutxipiri buruzkoa.**

"Amaia Martin Garin andreak, Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzarraren Erregelamendu Organikoaren 98. artikuluarekin bat, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du hil honetako Gune Publikoen Batzordean –

**II.1.7. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre Marrutxipi.**

"Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la

Obrak eta Hiri Zerbitzuak– egindako interpelazioaren ondorioz, Marrutxipirekin lotuta.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren hasieran, Marrutxipiko bizilagunek idatzi bat helarazi ziguten talde politiko guztioi zuzenduta, auzoarekin lotutako hainbat eskari eginez, haien artean, mantentze-lanak eta argiteria.

Haietako hainbat auzi konpondu dira; halere, nahiz eta zinegotzi ordezkariak baieztatzen duen auzoko argiak zuzenak eta egokiak direla, guk eremu hartara egindako bisitetan bestelakorik azaleratu da, eta iruditzen zaigu oraindik ere gune asko daudela behar beste argiztatu gabe.

Hobetu beharreko beste alderdi bat espaloiak dira: oraindik ere badira hainbat toki espaloirik gabeak, horrek oinezkoei eragiten dien arriskuarekin. Hori dela eta, ezinbesteko deritzogu eremu hartako oinezkoen irisgarritasunari buruzko azterlan oso bat egitea, etorkizunean konponbideak emateko.

Horregatik guztiagatik planteatu dugu honako:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal gobernuari egin dezala argiztatze beharrizanei buruzko azterlan bat Marrutxipi ingururako.

2. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal gobernuari egin dezala oinezkoen irisgarritasunari buruzko azterlan bat Marrutxipi ingururako.

3. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio

Comisión de Espacio público, obras y servicios del presente mes, en relación con MARRUTXIPI.

JUSTIFICACIÓN

A comienzos de febrero los y las vecinos de Marrutxipi hicieron llegar un escrito dirigido a los grupos políticos con varias peticiones relacionadas con el barrio, entre ellas cuestiones de mantenimiento y alumbrado.

Varias de esas cuestiones han sido solventadas, sin embargo y a pesar de las afirmaciones del concejal delegado donde afirma que la iluminación del barrio es en todo momento correcta y adecuada, por las visitas que hemos podido hacer a la zona todavía quedan muchos espacios insuficientemente iluminados.

Otro aspecto a mejorar es el de las aceras, todavía hay puntos en la zona que carecen de las misma, con el consiguiente riesgo para los peatones por lo que consideramos imprescindible que se haga un estudio completo de accesibilidad peatonal de la zona de cara a implementar soluciones en un futuro.

Por todo ello planteamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que lleve a cabo un estudio de necesidades de iluminación de la zona de Marrutxipi.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que lleve a cabo un estudio de accesibilidad peatonal de la zona de Marrutxipi.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San

udal gobernuari egin dezala bilera bat auzotarrekin, haien beharrizanak jasotzeko eta etorkizuneko hobekuntza jarduketei buruzko informazioa helarazteko.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Sebastián insta al Gobierno municipal a que lleve a cabo una reunión en el barrio para recoger las necesidades del vecindario y trasladar información sobre futuras actuaciones de mejora.

Donostia a 15 de marzo de 2019

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Miguel Angel Diez Bustos jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Olaia Duarte López y D. Miguel Ángel Díez Bustos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.1.8. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Uliako Mintegien Partzelari buruzkoa.**

"Miren Albistur Garmendia Talde Popularreko zinegotziak, egun indarrean den Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluaren babesean, honako MOZIOA aurkezten du udalbatzan lantzeko. Mozio hau 2018ko urtarrilaren 15eko

**II.1.8. Moción de control, presentada por el Grupo PP, relativa a la parcela de Viveros de Ulia.**

"Miren Albistur Garmendia, concejal del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada

Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean Uliako Mintegien Partzelari buruz izapideturiko interpelazioaren ondorioz etorri da.

JUSTIFIKAZIOA

Agintaldi honetan, antzinako udal mintegiak eta ur biltegiak zeuden partzelari buruz (Ulia mendiaren magalean) galdetu izan du gure talde politikoak.

Luxuzko etxebizitzak eraikitzeko aurreikusiriko proiektua alde batera geratu ondoren, azken urteotan zenbait proposamen jarri ditugu mahai gainean, multzo osoa sozialki eta kulturalki babestuta egon zedin, eta, era berean, balioztatua izan zedin, horrelako espazio batek merezi duen bezala. Izan ere, espazio honek kultura baliabide, baliabide natural eta ingurumen baliabide ugari ditu, eta bertako bizilagunen topagunea da, parke gisa erabiltzen baitute, aisialdirako eta topaketarako toki gutxi dagoelako zona horretan.

Duela gutxi jakin dugu Eusko Jaurlaritzak harturiko erabakia, hain zuzen ere, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean sartzea, Monumentu Multzoa kategoriarekin, honako hauek: parkeko bi ur biltegiak, haien funtzionamenduari loturiko osagai txikiago batzuk, basozainaren etxebizitza eta elementu horiek guztiak dauden ingurune naturala.

Jarduera horrek zera dakar, a priori, katalogaturiko ondasun horiek babestea eta balioztatzea. Horregatik, espazio horretan edozein jarduera egiten bada, jarduera hori bateragarria izan behar da Monumentu Multzoa errespetatu, balioztatu eta hobetzearekin, horrela baitago jasota Eusko Jaurlaritzak onarturiko Kultura Sailburuordetzaren erabakian.

ante la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio, celebrada el día 15 de Enero de 2018, relativa a la parcela de Viveros de Ulia.

JUSTIFICACION

En el presente mandato, desde nuestro Grupo Político hemos venido inquiriendo sobre la parcela donde se encontrataban los antiguos viveros municipales y depósitos de agua, en la falda de Ulía.

Ondorioztatzen dugu gobernuak ikusten duen aukera bakarra Ilunberen kudeaketa azpikontratatzea dela, lehiaketa berean bilduta egin beharreko aldaketak eta espazioaren kudeaketa.

Uste dugu balioetsi behar direla espazioa kudeatzeko beste modu batzuk ere.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari egin eta aurkez ditzala Ilunbe kudeatzeko modalitate posible guztiak (kudeaketa zuzena, emakida eta abar).

2. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari aurkez diezaiela udal taldeei, amaitu bezain pronto, Ilunberi buruz egiten ari diren azterlana.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldearen zinegotzia".

las rutas de eventos. Asimismo comentó que se está haciendo un estudio para estimar las modificaciones que habría que realizar para poder tener gestores interesados para participar en un concurso.

Concluimos que la única opción que contempla el Gobierno es la subcontratación de la gestión de Illunbe, incorporando en un mismo concurso las modificaciones a aportar y la gestión del espacio.

Creemos que se deben valorar también otras formas de gestionar el espacio.

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a hacer y presentar una valoración de todas las modalidades (gestión directa, concesión, ...) posibles para gestionar Illunbe.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a presentar a los grupos municipales, cuando este finalizado, el estudio que está realizado sobre Illunbe.

Donostia a 15 de Marzo de 2019

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Martin Ibabe Eceiza jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos los/la señores/a D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal, D. Martín Ibabe Eceiza y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**12. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 12:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**ONARTUA.**<br>**AHO BATEZ.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**APROBADO.**<br>**UNANIMIDAD.** |

**12. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 12:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**BAZTERTUA.**<br>**GEHIENGOA.**<br>**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**<br>**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**<br>**ABSTENTZIOAK: 0.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**RECHAZADO.**<br>**MAYORÍA.**<br>**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**<br>**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**<br>**ABSTENCIONES: 0.** |

**12. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 12:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**ONARTUA.**<br>**GEHIENGOA.**<br>**ALDEKO BOTOAK: 20 – (9) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**<br>**AURKAKO BOTOAK: 7 – PSE-EE.**<br>**ABSTENTZIOAK: 0.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**APROBADO.**<br>**MAYORÍA.**<br>**VOTOS A FAVOR: 20 – (9) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**<br>**VOTOS EN CONTRA: 7 – PSE-EE.**<br>**ABSTENCIONES: 0.** |

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**20. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**20. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.1.14. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen erabilera eta ustiapen Energiaren Euskal Erakundearen emakida eskaera dela-eta.**

“Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen erabilera eta ustiapen Energiaren Euskal Erakundearen emakida dela-eta, Udalbatzaren Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Ogasun Batzordean 2019ko urtarrilaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

**II.1.14. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa a la solicitud del Ente Vasco de Energía para la adjudicación de la concesión del uso y explotación de los puntos de recarga de los vehículos eléctricos.**

“Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, relativa a la solicitud del Ente Vasco de Energía para la adjudicación de la concesión del uso y explotación de los puntos de carga de los vehículos eléctricos, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada el 14 de enero de 2019 en la Comisión de Hacienda.

JUSTIFICACIÓN

2018ko urriaren 10ean, Energiaren Euskal Erakundeak ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen erabilera eta ustiapen emakida eskaera egin zion Donostiako Udalari. Tokiko Gobernu Batzordeak abenduaren 4an eskaera onartu zuen: “Administrazio emakida zuzenean ematea EEEri, erabilera pribatiboa izan dezaten. Bermingham, Hernani eta Elias Salaberria kaletan”. Kale hauetan errekarga azpiegiturak operatibo dauden arren, ez da inolako zerbitzurik eskaintzen ari.

El 10 de octubre de 2018, el Ente Vasco de Energía solicitó al Ayuntamiento de San Sebastián la concesión del uso y explotación de los puntos de recarga de vehículos eléctricos. La Junta de Gobierno Local aprobó dicha solicitud el pasado 4 de diciembre: ”Otorgar la concesión administrativa, mediante adjudicación directa a EVE para la utilización privativa del espacio (…) ubicados en las vías públicas consiguientes”. Seguidamente, el acuerdo cita las calles Bermingham, Hernani y Elias Salaberria. Aunque hay infraestructuras de recarga operativas en estas calles, no están ofreciendo ningún servicio en la actualidad.

Emakidaren baldintzak honako hauek dira:

”La concesión se otorga en los siguientes términos:

- Emakidan ematen diren lursailei beren izaerari dagokien erabilera eman beharko zaie eta esklusiboki bideratu ibilgailuen errekarga elektrikorako azpiegituraren ustiapenera: zehazki, aipatutako azpiegituraren kudeaketa teknikora eta monitorizaziora eta bere mantenura.

- Las parcelas objeto de concesión deberán utilizarse según su naturaleza y destinarse exclusivamente a la explotación de la infraestructura de recarga eléctrica de vehículos: en concreto, a la gestión técnica y a la monitorización y mantenimiento de la citada infraestructura .

- Emakida bi urterako izango da, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da, bi aldeak ados izanez gero eta berariaz hala eginez gero.

- La concesión se otorga por un plazo de dos años prorrogables por otros dos más, por acuerdo expreso entre las partes.

- Emakida doan egingo da. Aitzitik, EVE-EEEk emakidaren objektu diren espazioen erabilera lagapena egiten badu zutoin elektrikoen ustiapenaz eta mantenuaz arduratuko den agente pribatu baten alde, eta entitate horrek okupatutako espazioko jardueratik etekinik lortuko balu, emakidadunak edo bere kasuan lagapendunak ondasunak erabiltzeagatiko urteko 565 €ko tasa bat ordaindu beharko du; okupatutako jabari publikoaren balioaren (9.350,11) % 6ari dagokiona.

- La concesión tiene carácter de gratuito. No obstante, en el caso de que EVE-EEE proceda a la cesión de uso de los espacios objeto de concesión a favor de un agente privado que se encargue de la explotación y mantenimiento de los postes eléctricos y en el caso de que ésta entidad obtenga beneficios como consecuencia de la actividad que desarrolle en el espacio ocupado, la concesionaria o en su caso el cesionario deberán abonar una tasa anual por la utilización de los bienes que ascenderá a la cantidad de 565€, correspondiente al 6% del valor del dominio

público ocupado (9.350,11).”

Baldintza batzuk ez ditugu ulertzen. Emakidak pribatu baten alde erabilera lagapena egin dezakeela? Eta honek etekinak lortuko balitu, espazio publikoa erabiltzeagatik, 565 euro bakarrik urtero ordainduko lukeela?

No entendemos algunos de los términos citados.¿Puede la concesionaria ceder el uso a un agente privado? Y, en el caso de que dicho agente privado obtuviera algún beneficio, ¿sólo abonaría 565 euros al año por utilizar el espacio público?

Gogorarazi nahi dugu Donostiako Sustapenaren Kontseiluan errekarga elektrikoari buruz ikerketa bat egitea eskatu genuela, udal negozio publiko bezala kudeatu zitekeen ala ez jakiteko. Argi dago, ordea, Udal Gobernuak txostenik ez duela behar, izan litezkeen etekinak beste batzuentzat badira.

Queremos recordar que, en el Consejo de Fomento de San Sebastián, solicitamos la realización de un estudio sobre la recarga eléctrica, para saber si ésta podía gestionarse como un negocio público municipal. Pero está claro que el Gobierno Municipal no necesita ningún informe, ya que los posibles beneficios serán para otros.

Delegatuak batzordean errekarga azpiegiturek gaur egun zerbitzurik ematen ez dutenez, hauek funtzionamenduan jartzeko kontzesioa egitea arrazoitu zuen. Zerbitzua ematea ondo ikusten dugu baina emakidari emandako baldintzak ez.

En la Comisión, la persona que ostenta la Concejalía Delegada motivó la concesión en la puesta en funcionamiento de las infraestructuras de recarga, que no prestan actualmente servicio. Nos parece positivo que el servicio se preste, pero no así las condiciones en que se ha realizado la concesión.

Era berean Udalak politikak adimentsuak ezarri nahi baditu mugikortasun elektrikoa derrigorrezko atala dela uste dugu.

Así mismo, entendemos que, si el Ayuntamiento quiere implantar políticas inteligentes, la movilidad eléctrica es un apartado obligatorio.

Hori dela-eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOZIOA

MOCIÓN

• 1- Donostiako Udalbatzak, Udal Gobernuari eskatzen dio Donostiako Sustapena errekarga elektrikoari buruz egiten ari den ikerketa egindako emakidak baldintzatu ez dezala.

• 1- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que la concesión realizada no condicione los estudios sobre la recarga eléctrica que está llevando a cabo Fomento de San Sebastián.

• 2- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari

• 2- El Pleno del Ayuntamiento de San

eskatzen dio hiriko mugikortasun elektrikoa eta hiriko plangintza adimentsua Donostiako Sustapena egiten ari den ikerketaren eduki eta ondorioekin bat etortzeko, estrategia bateratu baten baitan.

Donostian 2019ko martxoaren 15ean

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Sebastián solicita al Gobierno Municipal que la movilidad eléctrica y la planificación urbana inteligente en nuestra ciudad sean coherentes con los contenidos y conclusiones de la investigación que está llevando a cabo Fomento de San Sebastián, dentro de una estrategia conjunta.

En San Sebastián, a 15 de marzo de 2019

Josu Mirena Ruiz Martín,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Josu Ruiz Martín y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.1.13. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Morlanseko igogailu inklinatua berriro urbanizatzeko proiektuaren obrak kontratatzeko espedientea bertan behera uztea dela eta.**

"Ricardo Burutaran Ferre EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Morlanseko igogailu inklinatua berriro urbanizatzeko proiektuaren obrak kontratatzeko espedientea bertan behera uztea dela eta, osoko bilkuran azter dadin. Mozioa 2019ko martxoaren 11ko Lurralde Garapen eta

**II.1.13. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el desestimiento del expediente de contratación de las obras del proyecto de reurbanización del ascensor inclinado de Morlans.**

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para ser tratada en Pleno, sobre el desestimiento del expediente de contratación de las obras del proyecto de reurbanización del ascensor inclinado de Morlans. La moción es

Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko azaroaren 20an, Tokiko Gobernu Batzarrak Morlanseko igogailu inklinatua berriro urbanizatzeko proiektuaren obrak kontratatzeko espedientea onartu zuen, eta, horrekin batera, baita baldintza administratibo berezien agiria eta baldintza teknikoen agiria ere.

2019ko urtarrilaren 18an, eskaintzen gutun azalak ireki ondotik, Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritzak txosten bat igorri zuen. Honela zioen: "Egiaztatu ahal izan denez, bidegorriaren trazadurak eta goiburuan adierazitako plazaren ingurunean lizitatu asmo den hirigintza obraren zati batek jabari publikotik kanpo dauden lurrak hartzen dituzte. Zehazki, planteatzen da (obra honekin) behin betiko okupatzea ekipamenduko bi partzela eraikigarri (g motakoak).

2019ko otsailaren 5ean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen BERTAN BEHERA UZTEA Morlanseko igogailu inklinatua berriro urbanizatzeko proiektuaren obrak egiteko prozedura, Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko azaroaren 20an onartua, lizitazioaren xedeak jabari publikotik kanpo dauden lurrak hartzen zituela eta.

Aipatutako lehiaketara aurkeztu ziren enpresek "harridura" agertu dute aipatutako kontratazio espedientea "bertan behera geratu" behar izan delako aipatutakoa bezain arrazoi ustekabeko bat dela eta. Bistan da, bestalde, "jarduera horrekin" sortutako irudia ez dela positiboa Udalarentzat.

consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 11 de marzo de 2019.

JUSTIFICACIÓN

La Junta de Gobierno Local del 20 de noviembre de 2018 aprobó el expediente, así como el Pliego de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas para la contratación de la ejecución de las obras del proyecto para la reurbanización del ascensor inclinado de Morlans.

El 18 de enero de 2019, después de la apertura de los sobres de las ofertas, el Departamento de Urbanismo Sostenible emite un informe en el que dice lo siguiente: "Se ha podido comprobar que el trazado del bidegorri y parte de la obra de urbanización que se pretende licitar en el entorno de la plaza citada en el encabezamiento invade terrenos situados fuera del dominio público. Concretamente, se plantea ocupar de manera definitiva (con esta obra) 2 parcelas edificables de equipamiento (parcela tipo "g").

La Junta de Gobierno Local del día 5 de febrero de 2019 acordó DESISTIR del procedimiento para la "Ejecución de las obras del Proyecto de reurbanización del ascensor inclinado de Morlans", aprobado el 20 de noviembre de 2018 por la JGL, motivado en el que el objeto de la licitación invade terrenos situados fuera del dominio público.

Las empresas que se presentaron al referido concurso se han visto "sorprendidas" por el hecho de que el citado expediente de contratación haya tenido que ser "anulado" por un hecho tan insólito como el referido. Es obvio, por otra parte, que la imagen producida con "dicha actuación" no es positiva para el Ayuntamiento.

Udal Gobernua horri buruz interpelatuta, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak onartu zuen funtzionamendua ez zela "eredugarria" izan, "eragozpen txiki bat" sortu zela eta, edonola ere, "hobe dela behin lotsagorritzea, ehun aldiz lotsagorritzea baino".

Balorazio subjektiboak alde batera utzita, kontua da neurriak hartu beharra dagoela halako egoerarik berriro gerta ez dadin, "kontrolik ezaren" edo "deskoordinazioaren" irudia ematen baitute.

Hori horrela, hauxe da nire KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariari behar diren jarraibideak eman ditzala obren edo urbanizazioaren exekuzio proiektuak behar bezala lotu daitezen hirigintza aldetik, proiektuak onartu edo lizitatu aurretik.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez dezala onartu obra edo urbanizazio proiekturik, bideragarria dela bermatzeko behar diren txosten guztiak ez baditu.

Donostia, 2019ko martxoaren 15a"

Sin.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Interpelado al respecto el gobierno municipal el Delegado de Urbanismo Sostenible admitió el "funcionamiento no fue modélico", que surgió un "pequeño inconveniente" y que en cualquier caso "era mejor ponerse una vez colorado que cien amarillo".

Dejando a un lado las valoraciones subjetivas, lo cierto es que es necesario implementar una serie de medidas para que este tipo de situaciones que, generan una imagen de "descontrol" o "descoordinación" no se repitan.

Por todo ello, el concejal que suscribe formula la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Delegado de Proyectos de Ciudad a que dé las instrucciones oportunas para que se contraste debidamente el encaje urbanístico de los proyectos de ejecución de obras y/o de urbanización, de forma previa a la aprobación de los citados proyectos y/o de su licitación.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta la gobierno municipal a que no apruebe proyectos de obra y/o urbanización que no cuenten con todos los informes necesarios que avalen la viabilidad de la ejecución de los mismos.

En Donostia, a 15 de marzo de 2019

Sin: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Loïc Alejandro y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 114 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.1.15. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Tabakalerako prismari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak 2019ko martxoaren 11n egin zuen bileran Tabakalerako prismari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Aurrera egin ez duen Tabakalera Kultura Garaikidearen Zentroaren hasierako proiektuan, jatetxe bat aurreikusten zen, hain zuzen, eraikinari erantsitako prisman, terrazaren alboan. Alabaina, baztertu egin zen ideia hori, eta erabilerarik gabe geratu zen berez helburu horretarako egin zen jasodura polemikoa.

Duela aste batzuk, jakin genuen −komunikabideen bitartez, beste behin ere− Tabakalerako Administrazio Kontseiluak

**II.1.15. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre el prisma de Tabakalera.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios a las Personas, celebrada el día 11 de Marzo de 2019, relativa al prisma de Tabakalera.

JUSTIFICACIÓN

El fallido Centro de Cultura Contemporánea de Tabakalera contemplaba, en su proyecto inicial, un restaurante ubicado en la sala situada en el prisma añadido al edificio, junto a la terraza. Esta idea también se desechó, posteriormente, quedando así sin uso el polémico levante construido al efecto.

Hace unas semanas, nos enteramos -por los medios de comunicación, para no variar- que el Consejo de Administración de Tabakalera

(Donostiako Udaleko ordezkariz osatua, Gipuzkoako Foru Aldundikoez eta Eusko Jaurlaritzakoez gainera) Mondragon Korporazioaren mendeko Basque Culinary Center-en proiektu pribatu bat finantzatuko duela, prisma horretan proiektu gastronomiko bat kokatzeko.

Harrigarria da, itxura denez, diru publikoz enpresa pribatu bati lagundu nahi izatea, hain zuzen, kontuan izanik espazio falta dagoela, berez, bere buruari Kultura Garaikideko Zentro deitzen dion leku batean. Ez dirudi, printzipioz, ekimen horrek inolako harremanik duenik hasieran Tabakaleraren proiektuak zuen filosofiarekin. Bide batez esanda, denborarekin, hausnarketa premia larria duen saski-naskia bihurtu da proiektua.

Aitzitik, hausnartu beharrean, eta hainbat herritarrek salatu duten moduan, badirudi aipaturiko erakundeek nahiago izan dutela diru publikoz proiektu pribatu bat finantzatu, eta, gainera, inolako azalpenik eman gabe; eta hori ez da onargarria.

Ez dugu ahantzi behar Tabakalerako eraikinean prisma berria eraikitzeak polemika handia sortu zuela hirian. Jatorrian, leku horretan ostalaritzako espazio bat eraikitzea zen asmoa, zentroaren osagarri gisa. Espazio horren barruan aurreikusten zen terraza ere, zeina hiriaren beste begiratoki bat bihurtuko baitzen.

Proiektu horrek porrot egin zuenez, espazio horren erabilera birpentsatu behar izan zen, eta, oraindik ere, “koktel, ospakizun, iragarkien grabazio eta abarretarako” alokatzeko espazio gisa iragartzen da Tabakalerako webgunean. Eraikinaren azken solairuan dagoen eta “Donostiako hiriaren ikuspegi paregabea” eskaintzen duen leku pribilegiatu gisa

(compuesto por algunos representantes del Ayuntamiento de San Sebastián, junto con la Diputación de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco, van a financiar un proyecto privado del Basque Culknary Center, dependiente de la Corporación Mondragón, para cobijar en ese prisma un proyecto gastronómico.

Sorprende el hecho de que, aparentemente, con dinero público, se vaya a beneficiar a una empresa privada, cuando hay necesidad de espacio para actividades propias de un espacio autodefinido como Centro de Cultura Contemporánea. No parece que esta iniciativa tenga, en principio, relación alguna con la filosofía que regía el proyecto de Tabakalera inicialmente; proyecto que ha pasado a convertirse, con el tiempo en un cajón de sastre que adolece de una profunda reflexión.

Lejos de reflexionar, y como denuncian muchos ciudadanos, parece que las instituciones mencionadas se han decantado por apoyar con dinero público un proyecto privado, sin dar ninguna explicación, además; lo que no es de recibo.

No debemos olvidar que la construcción del nuevo prisma en el edificio generó una intensa polémica en la ciudad. En su origen, la idea era instalar en ese lugar un espacio hostelero como complemento al centro, incluyendo la terraza como un nuevo mirador de la ciudad.

El fracaso de esta operación obligó a reconsiderar el uso de este espacio que, actualmente, se sigue anunciando en la web de Tabakalera como alquilable para “cócteles, celebraciones, rodajes publicitarios, etc.”. La terraza se ofrece como un espacio que corona el edificio y un lugar privilegiado desde el que “se obtiene una vista única de la ciudad de

eskaintzen da terraza.

Gogoratu behar da, sortu zenetik, Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroak hainbat oztopo gainditu behar izan dituela, barneko kudeaketari nahiz erabilerari dagokionez. Zentroaren aurreko arduradunek dimisioa eman ondoren, ez dago irizpiderik diru publikoz (berrogeita hamar milioi eurotik gora herritarren poltsikoetatik ordainduta) eraikitako eta mantentze kostu handia duen (urtean 4 milioi euro inguru, horiek ere herritarren poltsikoetatik ordainduta) zentro honek jarraitu beharreko norabideari buruz. Eta ezin ahaztu, besteak beste, Ubik liburutegiko langileen arazoak: hilabeteak daramatzate greban, pairatzen duten lan prekarietatea salatzen.

Zinegotzi ordezkariak batzordean emandako erantzunetatik ezin dugu ondorioztatu Tabakalerako Administrazio Kontseilua osatzen duten erakundeak zentroarekin egiten ari diren kudeaketari buruzko kezka sakona besterik, eta, hain zuzen, horregatik aurkezten du Talde Popularrak MOZIO hau:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta udal gobernuari saia daitezela Tabakalera eraikineko Prisma espazioa kudeatzeko lehiaketa publiko bat sustatzen Administrazio Kontseiluaren barruan, herritar guztiek ordaintzen dituzten baliabide publikoen kudeaketa optimizatzeko.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta udal gobernuari Donostiako Udaleko udal taldeei lehenengo puntuan adierazitakoa aurrera emateko emango dituzten pausoen berri emateko.

San Sebastián”.

Hay que recordar que, desde su origen, el Centro Internacional de Cultura Contemporánea ha atravesado numerosas dificultades en su gestión interna y en su utilidad. A las dimisiones de los anteriores responsables del centro se une la falta de criterio sobre el rumbo a seguir por un centro construido con dinero público (más de cincuenta millones de euros salidos de los bolsillos de la ciudadanía), que tiene un importante coste anual de mantenimiento (en torno a los 4 millones de euros anuales. Salidos, también, de los bolsillos de los ciudadanos). Y problemas como el de los trabajadores de la biblioteca Ubik, que llevan meses en huelga denunciando la precariedad laboral que sufren.

De las respuesta ofrecidas en Comisión por el Concejal Delegado sólo podemos extraer una honda preocupación por la forma en la que las Instituciones que conforman el Consejo de Administración están gestionando el centro, y es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a intentar promover en el seno del consejo de Adminitración el que se saque a concurso público la gestión del espacio “Prisma”, del edificio de Tabakalera, en orden a optimizar la gestión de los recursos públicos que sostiene el conjunto de la ciudadanía.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que informen a los grupos municipales del Ayuntamiento de San Sebastián de los pasos a dar para llevar a cabo lo dispuesto en el punto primero.

Donostia, 2019ko martxoaren 15a

Miren Albistur Garmendia
Talde Popularraren bozeramailea".

En Donostia/ San Sebastián, a 15 de Marzo de 2019

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Jon Insausti Maisterrena jaunak, Amaia Martin Garin andreak eta Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. José María Murguiondo Casal, D. Jon Insausti Maisterrena, D.ª Amaia Martín Garín y D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**II.1.16. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, etxez etxeko laguntzako langileek egindako eskaeraren inguruan.**

"Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko martxoaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 7an honako galdera hau

**II.1.16. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la petición realizada por las trabajadoras del servicio a domicilio.**

"Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada el 11 marzo de 2019 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El 7 de enero registramos la siguiente

erregistratu genuen eta martxoan erantzunik gabe jarraitzen genuen:

> A lo largo del mes de diciembre algunas de las auxiliares del servicio de ayuda a domicilio nos han trasladado su preocupación por unos pagos que no han recibido por parte de la antigua empresa licitadora (Garbialdi). En concreto, hacen referencia a pagos pendientes del plus del transporte de los años 2016, 2017 y 2018.
>
> Parece ser que la empresa actual, Aztertzen, ha solicitado al Ayuntamiento que la fianza depositada por Garbialdi no sea devuelta hasta saldar la deuda pendiente con las trabajadoras.
>
> Por todo ello, la concejala abajo firmante formula la siguiente PREGUNTA:
>
> • ¿Ha tenido el Ayuntamiento conocimiento de esta situación?
> • ¿Cómo se va a gestionar la situación?
> • Siendo un servicio público (pagado, por tanto, con dinero público), ¿cómo se realiza el control de cumplimiento de condiciones laborales?

Ondorioz, martxoko batzordeetara interpelazioa aurkeztu genuen eta delegatuak adierazi zuen, pliegoen betekizunaren jarraipena egiten ari zirela udaletik eta finantza sailarekin harremanetan dagoela gaia bideratzeko.

pregunta, y, aunque estamos ya en marzo, seguimos sin recibir respuesta:

> A lo largo del mes de diciembre algunas de las auxiliares del servicio de ayuda a domicilio nos han trasladado su preocupación por unos pagos que no han recibido por parte de la antigua empresa licitadora (Garbialdi). En concreto, hacen referencia a pagos pendientes del plus del transporte de los años 2016, 2017 y 2018.
>
> Parece ser que la empresa actual, Aztertzen, ha solicitado al Ayuntamiento que la fianza depositada por Garbialdi no sea devuelta hasta saldar la deuda pendiente con las trabajadoras.
>
> Por todo ello, la concejala abajo firmante formula la siguiente PREGUNTA:
>
> • ¿Ha tenido el Ayuntamiento conocimiento de esta situación?
>
> • ¿Cómo se va a gestionar la situación?
> • Siendo un servicio público (pagado, por tanto, con dinero público), ¿cómo se realiza el control de cumplimiento de condiciones laborales?

Como consecuencia de ello, en las comisiones de marzo presentamos una interpelación en relación con este asunto. La concejala delegada señaló que el Ayuntamiento estaba realizando el seguimiento del cumplimiento de los pliegos y que estaba en contacto con la Dirección Financiera para encauzar el asunto.

Martxoaren 14an etxez etxeko laguntzako zerbitzuko langileen komiteak adierazi digunez gaurkoz enpresak ez ditu atzerapen guztiak ordaindu eta, egin diren ordainketetan, akatsak egon dira.

Kontuan izanda azkeneko urtean zerbitzuan egon diren gora-beherak: greba, sektorearen prekarizazioarekin bukatzeko eskakizunak, enpresa aldaketa, etab. uste dugu garrantziaz eta presaz landu beharreko gaia dela, ahaztu gabe, diru publikoaz eta lan eskubideez hitz egiten ari garela.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileek duten egoerari jarraipen estua eta presazkoa egin diezaiola eta horretarako beharrezkoak diren bitartekoak jarri ditzala.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

El pasado 14 de marzo, el Comité de Personal del Servicio de Ayuda Domiciliaria nos informó de que la empresa no había pagado todos los retrasos y que en los pagos efectuados se habían producido errores.

Teniendo en cuenta las incidencias que se han registrado en el último año en el citado servicio -huelga, peticiones para acabar con la precarización del sector, cambio de empresa, etc.-, consideramos que esta cuestión hay abordarla de manera urgente y con la importancia que reviste, sin olvidar que estamos hablando de dinero público y de derechos laborales.

Por todo ello, teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que realice un estrecho y urgente seguimiento de la situación que padecen las trabajadoras del servicio de ayuda a domicilio, y a que establezca los medios necesarios para ello.

San Sebastián, 15 de marzo de 2019

Olaia Duarte López
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Amaia Martin Garin andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Aitziber San Roman Abete andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Olaia Duarte López, D.ª Amaia Martín Garín, D. Ernesto Gasco Gonzalo, D.ª Aitziber San Román Abete y D. José Luis Arrue Pintó , en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**ATSEDENALDIA**

**14:15EAN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:30AK DIRENEAN.**

**RECESO**

**SIENDO LAS 14:15 H., SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN CUANDO SON LAS 15:30 H.**

---------------

**II.1.17. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, euskaraz egiterakoan sortzen diren gatazkak direla-eta.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko martxoaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalak indar eta esfortzu handi eta ugari egiten ditu gazte donostiarrek euskaraz egin dezaten hala nola euskararen erabilera bere egunerokoan eta zirkunstantzia guztietan ohikoa izan dadin.

Tamalez praktikan arazo ugari suertatzen dira, inoiz gatazka mailara ere ailegatzen direnak. Horregatik, beste arrazoi ere direla medio,

**II.1.17. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a los conflictos que se producen en relación al uso del euskera.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas el 11 de marzo de 2019.

JUSTIFICACIÓN

El Ayuntamiento de San Sebastián realiza muchos y muy variados esfuerzos para que la juventud donostiarra se exprese en euskera y para que el uso del euskera sea habitual en su vida diaria, en cualquier circunstancia.

Desgraciadamente, en la práctica surgen muchos problemas, que, a veces, llegan incluso a degenerar en conflicto. Por ello, entre

Donostiako Euskararen Plan Orokorra 2015-2019 delakoak honako helburu hau jarri zion Udalari: “donostiarren hizkuntza eskubideetan eragina izan dezakeen edozein egoeraren aurrean, Udala dagokion erakundearekin harremanetan jarri eta egoera horri aurre egiten saiatuko da nahiz eta Udalaren eskumenekoa ez izan”.

otros motivos, el Plan General del Euskera de San Sebastián 2015-2019 estableció el siguiente objetivo para su cumplimiento por el Ayuntamiento: “…ante cualquier situación que pueda tener incidencia en los derechos lingüísticos de las y los donostiarras, el Ayuntamiento intentará ponerse en contacto con la institución correspondiente y afrontar dicha situación, a pesar de que no sea competencia del Ayuntamiento…”.

Arazook inoiz gatazka mailara ere ailegatzen dira eta horixe izan da Donostiako gazte batzuekin iazko maiatzean gertaturikoa, Gipuzkoa plazan Ertzaintzak beraien identifikazio unean egin zuenean beraiek euskaraz egiterakoan tira birak sortu baitziren. Udal Gobernuak gaiaren jarraipena egin du, besteak beste talde honetatik eskatuta ere, eta informazio osagarria eskuratu du, eskubidearen urraketa egon zela Ertzaintzak berak errekonozitu zuelako Behatokik duen twitter kontuaren bidez, eta Segurtasun Sailak barkamen publikoa egiterakoan.

Uno de los casos en que este tipo de problemas ha llegado al nivel de conflicto es lo que ocurrió con algunos jóvenes donostiarras en mayo del pasado año, cuando en la plaza de Gipuzkoa, en el momento en que la Ertzaintza procedía a su identificación, ellos hablaron en euskera y se vivieron unos momentos tensión. El Gobierno Municipal ha realizado un seguimiento del tema, a petición, entre otros, de este grupo, y ha obtenido información complementaria; la propia Ertzaintza, a través de la cuenta que el Observatorio tiene en twitter, reconoció que hubo vulneración de un derecho y el Departamento de Seguridad pidió perdón públicamente.

Halaber horren guztiaren lekuko publikoa izan da sare digitalen bidez zabaldu zen bideoa Argia aldizkariaren kazetaritzari esker. Tamalez euskal kazetaritzaren eguneroko egiteko zailari egun hedabideek jasaten dituzten muga estuak gehitu behar izan zaizkio arestian azaldutako gertakizunen berri emateagatik.

También ha dado testimonio público de los hechos el vídeo que se difundió mediante las redes digitales, gracias a la labor periodística de la revista Argia. Por desgracia, a la difícil tarea diaria que lleva a cabo el periodismo vasco ha habido que sumar los estrechos límites que se imponen actualmente a los medios de comunicación, por el hecho de informar de los acontecimientos que acabamos de relatar.

Euskarak bizi duen egoera zailari oztopo berriak gehitzea bide ez denez kasuok epaitegian ebatzi baino hobe litzateke modu egokiagoan konpontzea eta hor Udalaren bitartekaritza lana garrantzitsua izan

Como no sería justo poner más obstáculos al euskera, pues su situación ya es difícil, sería mejor buscar una forma adecuada de resolver este tipo de casos que no sea, precisamente, acudir al juzgado. A nuestro entender, el

daitekeelakoan gaude, are eta gehiago eskubide urraketaren onartze bera abiapuntua hartuz gero, Udal Gobernuak azpimarratu duen moduan, eta Udalak bere Plan Orokorrean jaso zituen helburuak kontuan hartuta.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, dagokion Euskararen Plan Orokorra aginduei jarraikiz, hizkuntza eskubideen urraketa suertatzen denean sor daitezkeen gatazkak beste erakundeen eta donostiarren artean egoki konpontze aldera, eskura dituen baliabideak bitartekaritza lanetara bideratzeko, bere herritarrak babesteko eta Donostian euskaraz egitea errealitate bihurtzeko helburu.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Ayuntamiento puede desempeñar una importante labor de mediación en estos casos, aún más si partimos del reconocimiento de la vulneración de derechos, tal como ha recalcado el Gobierno Municipal, y teniendo en cuenta los objetivos que fijó el Ayuntamiento en su Plan General del Euskera.

Por tanto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, en cumplimiento de lo establecido en el Plan General del Euskera correspondiente y con el propósito de resolver de un modo adecuado los conflictos que, derivados de la vulneración de los derechos lingüísticos, puedan surgir entre otras instituciones y la población donostiarra, emplee los recursos de los que dispone en la realización de tareas de mediación, con el objetivo de defender a la ciudadanía y de que el uso del euskera en San Sebastián sea una realidad.

San Sebastián, 15 de marzo de 2019

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.1.18. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, pobrezia energetikoa ekiditeko bulegoaren inguruan.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko martxoaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 4an hiriko pentsionisten kolektiboak honako eskaera hau aurkeztu zuen erregistro bidez (199/3192): pobrezia energetikoaren ondorioak gero eta jende gehiagok jasaten duela salatzen dugu eta udal gobernuari eskatzen diogu energiaren bulego bat antolatu dezala, pobrezia energetikoarekin lotuta dauden beharrak detektatzeko eta bideratzeko.

Aurkeztutako dokumentuan pentsionisten kolektiboak egiten duen eskaera Espainiako estatuko hainbat hirietan martxan jarri den iniziatibaren antzekoa da. Esate baterako, 2018ko azaroan Valentziako Udalak ireki zuen horrelako ofizina bat, pobrezia energetikoari aurre egin ahal izateko, hiriko %23ari eragiten dion kaltea baita.

Pentsionisten kolektiboak dioenez, orain arte ez du erantzunik jaso udal gobernuaren aldetik.

Bestetik, gogorarazi behar dugu abenduan hiriko pentsionisten egoera ekonomikoa hobetzeko hainbat neurri onartu genituela

**II.1.18. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la oficina para evitar la pobreza energética.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que sea tratada en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Servicios a las Personas el día 11 de marzo de 2019.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 4 de febrero, el colectivo de pensionistas de la ciudad presentó, a través del registro (199/3192), un escrito en el que denunciaba que los efectos de la pobreza energética afectan cada vez a más personas y solicitaba al gobierno municipal que se habilite una oficina de energía, a fin de detectar y encauzar las necesidades relacionadas con la pobreza energética.

La demanda que realiza el colectivo de pensionistas en el documento presentado es similar a la iniciativa que se ha puesto en marcha en diversas ciudades del Estado español. Por ejemplo, en noviembre de 2018, el Ayuntamiento de Valencia abrió una oficina de este tipo para hacer frente a la pobreza energética, ya que afecta al 23 % de la ciudad.

Según el colectivo de pensionistas, hasta ahora no han recibido respuesta alguna por parte del Gobierno Municipal.

Por otro lado, debemos recordar que en el mes de diciembre se aprobó en pleno una serie de medidas para mejorar la situación

udalbatzan. Gure kontrol mozioak honako hau esaten zuen eta oraindik ez dugu berririk izan egin beharreko diagnostikoaren inguruan:

económica de las y los pensionistas de la ciudad, a partir de una moción de control que presentó nuestro grupo. La citada moción decía lo siguiente, a pesar de que todavía no hemos recibido ninguna información en relación con el diagnóstico a realizar:

> 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari martxoko eta iraileko udalbatzarretan onartutako neurriak betetzeko baliabideak jarri ditzala, Alderdi Ederreko Pentsionisten plataformak egindako eskaerarekin bat eginez.

> 1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que disponga los recursos necesarios para el cumplimiento de las medidas aprobadas en los plenos de marzo y septiembre, en relación a las solicitudes de la Plataforma de Pensionistas de Alderdi Eder.

> 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko emakume pentsionisten pobreziaren inguruko diagnostikoa egiteko baliabideak jarri ditzala.

> 2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que disponga los recursos necesarios para realizar el diagnóstico sobre la pobreza de las mujeres pensionistas donostiarras.

Hori dela eta, martxoko batzordeetan interpelazioa aurkeztu dugu eta gizarte-ekintzako delegatuak adierazi duenez, pentsionisten kolektiboak egindako proposamena interesgarria iruditu zaio udal gobernuari eta hurrengo enplegu sustapenean kokatu daitekeen zerbitzua dela uste dute, energiaren faktura bideragarria nola egin azaltzeko hiriko familiei. Dena den, delegatuak ez du epe zehatzik aipatu eta uste dugu zehaztasuna behar duen proposamen bat dela benetan burua izan dadin.

Por ese motivo, en las comisiones de marzo presentamos una interpelación sobre esta cuestión. Según señaló la concejala delegada de Acción Social, el Gobierno Municipal considera interesante la propuesta realizada por el colectivo de pensionistas y opina que este servicio podría incluirse en la siguiente promoción de empleo, con el fin de informar a las familias cómo hacer viable su factura energética. Sin embargo, la delegada no mencionó una fecha concreta, y consideramos que esta propuesta requiere de una mayor concreción para que pueda llevarse a efecto.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari idatziz aurkeztu dezala pobrezia

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que presente por escrito el plan sobre la oficina de

energetikoa ekiditeko bulegoari dagokion plana eta zerbitzua noiz irekiko duen zehaztu dezala, Alderdi Ederreko pentsionisten plataformaren eskaerari erantzunez.

atención a la pobreza energética, y a que concrete la fecha de apertura del servicio, con el fin de responder a la petición de la Plataforma de los Pensionistas de Alderdi Eder.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

San Sebastián, 15 de marzo de 2019

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Olaia Duarte López
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.1.19. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, memoria demokratikoari buruzkoa.**

**II.1.19. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, en relación con la memoria democrática.**

"Amaia Martin Garin andreak, Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzarraren Erregelamendu Organikoaren 98. artikuluarekin bat, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du hil honetako Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz, memoria demokratikoarekin lotuta.

"Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de servicio a las personas del presente mes, en relación con la memoria democrática.

JUSTIFIKAZIOA

Egia berreskuratzeko, justizia egiteko eta erreparaziorako udal konpromisoak aurrera

JUSTIFICACIÓN

El compromiso municipal en favor de la recuperación de la verdad, justicia y

jarraitu behar du gure hirian, memoria demokratiko baten oinarrizko printzipio gisa.

reparación como principios básicos para una memoria democrática debe seguir avanzando en la ciudad.

1936ko uztaileko kolpe faxistak Errepublikaren legezkotasuna amaitu zuen, eta heriotza eta errepresioa ezarri zituen pertsona, talde eta erakunde sozial, politiko eta kultural guztien gainean, baldin eta haien jarduna Errepublikaren legezkotasunaren eta sistema demokratiko baten defentsaren alde bideratu bazuten.

El golpe fascista de julio de 1936 acabó con la legalidad republicana provocando muerte y represión sobre todas las personas, grupos y organizaciones sociales, políticas y culturales que en el marco de la legalidad republicana y en defensa de un sistema democrático habían desarrollado su actividad.

Hasierako etapa hartan, diktadura etorri zen, eta modu sistematikoan oinarrizko eskubide eta askatasun handienak urratu zituen berrogei urtean: ehunka mila pertsona fusilatu eta desagertu, erbesteratze masiboa, behartutako lanak esklabotza araubidean, hamarka mila lagun atxilotuta, tratu txarrak jasota, torturatuta eta espetxeratuta, hizkuntzak eta kulturak jazarrita...

A esta etapa inicial, sucedió la Dictadura que de forma sistémica vulneró los más elementales derechos y libertades durante cuarenta años: cientos de miles de personas fusiladas y desaparecidas, exilio masivo, trabajos forzados en régimen de esclavitud, decenas de miles detenidas, maltratadas, torturadas y encarceladas, lenguas y culturas perseguidas...

Hiru hilabete pasatxoren buruan, Gipuzkoa frankisten esku erori zen. Gerra garaiko fusilatuak eta desagertuak 1.100 inguru dira Gipuzkoan; atxilotu eta kartzelan sartu ostean fusilatuak gehienak, 1936ko altxamenduaren ondotik. Haiek guztiek biktima ez-ofizialen zerrenda osatzen dute, urte haietako errepresioak izenik gabe utzitako hildakoak, alegia.

En algo más de tres meses Gipuzkoa cayó en manos franquistas. El listado de fusilados y desaparecidos en la Guerra asciende a 1.100 personas en la provincia, fusilados en su mayor parte después de ser detenidos y encarcelados tras el alzamiento militar de 1936, todos ellos componen el listado de víctimas no oficiales, de los muertos sin nombre que dejó la represión de esos años.

Lehendabiziko urteetan, 380 lagun akabatu zituzten gutxienez frankistek hirian. Aukera politiko eta sindikal orotako pertsonak, altxatuei aurka egin zietenak edo haiekin kolaboratu ez zutenak. Diktaduraren garaian errepresioak ez zuen amaierarik izan: erabat murriztu ziren askatasun demokratikoak, nabarmen urratu ziren giza eskubideak, erabateko errepresioa edonori, sinesmen erlijioso eta ideologikoak ezarri zituzten... Guztira, Donostiako Udaleko 1.623

En los primeros años, al menos 380 personas fueron ejecutadas por los franquistas en la ciudad. Gentes de todas las opciones políticas y sindicales que se opusieron a los sublevados o que no colaboraron con ellos. Durante la Dictadura la represión no cesó: supresión total de libertades democráticas, vulneración flagrante de derechos humanos, represión gratuita e indiscriminada, imposición de credos religiosos e ideológicos... En total, 1.623 funcionarios del ayuntamiento donostiarra

funtzionario “ikertu edo depuratu” zituzten, eta haietako zazpi, fusilatu.

Errepresio haren adibide bat Franco diktadorearen azkeneko egunetara arte luzatu zen: Guardia Zibilaren Intxaurrondoko kuartelean izandako torturen biktimek, 1975. eta 1976. urteetakoek, berriki deklaratu dute Donostiako auzitegietan. Lau biktima horiek ez ezik, askoz ere gehiagok aurkeztu dituzten kereilak, Guardia Zibilaren Jesús Muñecas kapitainak frankismoaren aurkako militanteen kontra egindako jarduera kriminalak salatzeko.

Garrantzitsua da administrazioak diktaduraren biktimak sostengatzea eta babestea abian ipintzen diren prozedura judizialetan. Memoria berreskuratzea funtsezko pausoa da, bizikidetza demokratiko bati heltzeko.

Nazio Batuen ebazpen eta akordio ugarik ezartzen dute Estatuaren nazioarteko obligazioa, eta, ondorioz, Estatuko administrazio guztiena –toki administrazioena barne–, beren lurraldean egindako nazioarteko krimenak zigor bidez jazartzeko. Nahiz eta Udalbatzarrak hartu dituen erabakiak memoria demokratikoa defendatzeko eta egia, justizia eta erreparazio printzipioak sustatzeko, orain artean Donostiako Udalak ez du pausorik egin hirian frankismoaren biktimen aldeko kereila kriminal bat sustatzeko.

Hil honetako Udalbatzarraren batzordean, auzi honetarako planteatutako interpelazioaren aurreko zinegotzi ordezkariak esan zuen edozer ekintza abiarazi aurretik Aranzadiren azterketako datuei itxaron behar zitzaiela. Gogoratu behar dugu azterlan horiek 1936 eta 1945 bitarteko garairako bakarrik ari direla egiten. Beharrezkoa da azterketa horiek

fueron "investigados o depurados" y siete de ellos, fusilados.

Un ejemplo de la represión que se alargó hasta los últimos días del dictador Franco, son las cuatro víctimas de torturas sufridas en el cuartel de la Guardia Civil de Intxaurrondo en los años 1975-1976 que estuvieron declarando recientemente en los juzgados donostiarras. Estas cuatro víctimas se unen a otras muchas que ya han presentado querellas donde denuncian las actuaciones criminales del capitán de la Guardia Civil Jesús Muñecas contra militantes antifranquistas.

Es importante que la administración impulse y apoye a las víctimas de la dictadura en los procedimientos judiciales que se pongan en marcha. Recuperar la memoria es un paso esencial para construir una convivencia democrática.

Son numerosas las resoluciones y acuerdos de las Naciones Unidas que establecen la obligación internacional del Estado, y en consecuencia de todas sus administraciones, también las locales de perseguir penalmente los crímenes internacionales cometidos en su territorio. A pesar de los acuerdos plenarios en defensa de la memoria democrática y del impulso de los principios de verdad, justicia y reparación hasta la fecha el ayuntamiento donostiarra no ha dado pasos en el impulso de una querella criminal por las víctimas del franquismo en la ciudad.

En la comisión de pleno del presente mes el concejal delegado ante la interpelación planteada en este sentido retrasaba cualquier actuación a la obtención de datos de los estudios de Aranzadi. Debemos recordar que actualmente los citados estudios sólo se están realizando en el período que comprende entre 1936 y 1945. Es necesario agilizar y completar

bizkortzea eta diktaduraren amaierara arte osatzea. Zabaldu egin behar dira erremintak eta mekanismoak, bideratu egin behar dira biktimen lekukotzak eta, epaiketetan parte hartzen ari den biktimarik izanez gero, urratsak egin behar dira babesa eta beharrezko bitarteko guztiak emateko frankismoaren biktimei justizia eskuratzeko bidean, aurretik aipatu dugun moduan.

Horregatik guztiagatik planteatu dugu honako:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari bizkor ditzala frankismoak hirian utzitako biktimei buruzko azterlanak, kereila kriminal bat aurkeztu ahal izateko Donostiako instrukzioko epaitegian, diktadura frankistak gizateriaren kontra egindako krimenak ikertzeko, hain justu, udalerri honetako bizilagunei eragin zietenak edo Donostiako udal mugartean gertatu zirenak.

2. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari, egin dezala hiriko epaitegietan erregimen frankistak egindako delituen salaketen kontra irekitako prozesu judizialen segimendua, eta babes eta lagun ditzala, beharrezko bitarteko publikoekin, hala nahi duten frankismoaren biktimak justizia demokratikoa lortzeko bidean.

3. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari helaraz diezaiola akordio hau Buenos Aireseko (Argentinako Errepublika) 1. Auzitegi Kriminal eta Korrekzional Federalari – Maria Servini de Cubría epailearen esku

los citados estudios hasta el final de la dictadura. Las herramientas y mecanismos han de ampliarse, se ha de facilitar el testimonio de las víctimas y en el caso de que haya víctimas, como es el caso anteriormente descrito, que estén acudiendo a los juzgados, se den pasos para apoyar y facilitar todos los medios necesarios a las víctimas del franquismo en la obtención de justicia.

Por todo ello planteamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a agilizar los estudios relativos a las víctimas del franquismo en la ciudad al objeto de poder presentar una querella criminal ante los Juzgados de Instrucción de Donostia / San Sebastián a efectos de que por parte de éstos se investiguen los crímenes contra la humanidad cometidos por la dictadura franquista que afectaron a los y las vecinas de de este Ayuntamiento y/o que se hubieran producido en el término municipal de Donostia / San Sebastián.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a hacer seguimiento de los procesos judiciales abiertos en los juzgados de la ciudad relativos a la denuncia de delitos cometidos por el régimen franquista y mostrar su apoyo y ayuda con los recursos públicos necesarios que permitan la obtención de justicia democrática para todas aquellas víctimas del franquismo que así lo deseen.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a dar traslado de este acuerdo al Juzgado Nacional de lo Criminal y Correccional Federal nº1 de Buenos Aires, República Argentina, a cargo de

dagoenari–, dagozkion ondoreak izan ditzan 4591/2010 Kereilan (Nomen nescio, Espainian diktadura frankistak egindako genozidio eta gizateriaren kontrako krimenengatik).

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

la jueza Maria Servini de Cubría, a fin de que surta los efectos que procedan en la Querella 4591/2010, nominada "N.N. por genocidio y/o crímenes de lesa humanidad cometidos en España por la dictadura franquista".

Donostia a 15 de marzo de 2019

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 24 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

---------------

**II.1.21. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, kudeaketa publikoko gune komunitarioei buruzkoa.**

"Amaia Martin Garin andreak, Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzarraren Erregelamendu Organikoaren 98. artikuluarekin bat, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du hil honetako GUNE PUBLIKOEN

**II.1.21. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, relativa a la gestión comunitaria de espacios públicos.**

"Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la

BATZORDEAN –OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK– egindako interpelazioaren ondorioz, espazio publikoen kudeaketa komunitarioarekin lotuta.

JUSTIFIKAZIOA

Herritarren partaidetzak hiri bizia eta kohesionatua erakusten du, eta administrazio publikoek sustatu beharreko balioa da. Hiria definitzeko prozesuan, espazio publikoen kudeaketa komunitarioan oinarrituta egin behar da administrazioaren eta herritarren arteko erantzukidetasuna sustatzeko lana. Nolanahi ere, proiektu horiek oso mugatuak dira gaur egun.

Beste hiri batzuk ari dira sustatzen hainbat neurri eta estrategia, udal erakundearen eta ekimen komunitarioen arteko harreman modu berriak aitortzeko eta sendotzeko. Beharrezkoa da instalazioen eta zerbitzu publikoen kudeaketa komunitarioa sustatzea, guztion ongiari bideratutako proiektuak garatzeko.

Gaur egun, Uliako Lore Baratzak dira, esate baterako, guztion ongirako bideratutako kudeaketa komunitarioaren adibide bat, zeinak Eusko Jaurlaritzaren beraren aintzatespena jaso baitu, Elkarlan sariaren bidez. Esandako elkarte hori bera, orain gutxi, espazio publiko bat kudeatzeko esperientzia komunitarioko adibide izan da, Eusko Jaurlaritzaren Bherria herritarren berrikuntzako laborategiaren barruan.

Uliako bizitegien inguruan garatutako esperientzian, elkartasun eta erkidego loturek sariak eman dizkiote proiektuari, eta erreferentzia bihurtu da Euskadin. Hori hala izanik, urteotan guztiotan udal gobernuak

Comisión de ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS del presente mes, relativa a la gestión comunitaria de espacios públicos.

JUSTIFICACIÓN

La importancia de la participación ciudadana como muestra de una ciudad viva y cohesionada es un valor a potenciar como administración pública. El fomento de la corresponsabilidad entre administración y ciudadanía en la definición de ciudad tiene que realizarse sobre la base de la gestión comunitaria de los espacios públicos. Sin embargo, a día de hoy, estos proyectos son muy limitados.

Otras ciudades vienen trabajando en el impulso de medidas y estrategias para garantizar y promover el reconocimiento y la consolidación de nuevas formas de relación entre la institución municipal y las iniciativas comunitarias en el espacio público. Es necesario fomentar la gestión comunitaria de instalaciones y servicios públicos para desarrollar proyectos dirigidos al bien común.

Actualmente, un ejemplo de proyecto de gestión comunitaria en la ciudad dirigido al bien común es el de Uliako Lore Baratzak, que ha sido reconocido por el propio Gobierno Vasco a través del premio Elkarlan. La citada asociación recientemente ha sido un ejemplo de experiencia comunitaria de gestión de un espacio público dentro del laboratorio de innnovación ciudadana Bherria del Gobierno Vasco.

La experiencia desarrollada en el espacio de Viveros de Ulia donde los lazos de solidaridad y comunidad le hacen a este proyecto valedor de premios y ser referencia no sólo dentro de Euskadi debería de haber hecho a lo largo de

balioetsi behar zuen tankera honetako proiektuak sustatzea beste espazio publiko batzuetan ere.

Horretarako, garrantzitsua da kudeaketa komunitarioko jarduera sustatzea, baina baita tankera horretako proiektuak garatzeko espazio egokiak topatzea ere. Jarduera horiekin batera, ezinbestekoa izango da gizarte irizpide batzuk ezartzea, udal ondarea erabilerara komunitariorako lagatzeko. Irizpide horiek, bestalde, elkartegintza ehunarekin batera ezarri beharko lirateke, lankidetza prozesu baten bidez; hala, ekintza esparrua ezartzeaz gain, herritarren ekimenek sustatzen dituzten proiektuen segimendua eta ebaluazioa ere sakonduko dituzte.

Hil honetako udalbatzarraren batzordean tratatu zen gai honi buruzko interpelazioa, eta gogorarazi zen badirela herritarren partaidetza sustatzeko programak, kudeaketa komunitariorako espazioak sortzeko aukeraren aurreko urrats gisa.

Hori hala, eta ikusirik badirela hainbat espazio elkarteek kudeatuak, ez da hau baino modu hoberik herritarren partaidetza sustatzen jarraitzeko: administrazioak berak planteatzea erremintak eta espazioak, eta erraztasunak ematea proiektuak garatzeko.

Arrazoi horiek kontuan hartuta, aurkezten dugu honako

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari, lagun dezala kudeaketa komunitarioko partaidetza prozesuak garatzen baliabide publikoetan.

estos años que el gobierno municipal valorara el fomento de este tipo de experiencias en otros espacios públicos.

Para ello es importante tanto el fomento de la actividad de gestión comunitaria así como la localización de espacios favorables para el desarrollo de este tipo de proyectos. Junto a estas actuaciones, será imprescindible establecer unos criterios sociales para la cesión del patrimonio municipal para el uso comunitario. Criterios que por otra parte deberán de establecerse mediante un proceso de trabajo colaborativo con el tejido asociativo, que además de establecer el marco de acción, también profundicen en el seguimiento y la evaluación de los proyectos que se vayan impulsando por las iniciativas ciudadanas.

En la comisión de pleno del presente mes donde fue tratada la interpelación planteada en torno a este tema, se recordó que existen programas para el fomento de la participación ciudadana, como paso previo a la posibilidad de generar espacios de gestión comunitaria.

Lo cierto es que existiendo actualmente ya espacios comunitarios que están siendo gestionados por asociaciones, qué mejor manera de seguir fomentando la participación ciudadana que planteando desde la propia administración herramientas y espacios que faciliten el desarrollo de proyectos.

Es por ello, por lo que presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a incentivar el desarrollo de procesos participativos de gestión comunitaria en recursos públicos.

2. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari, ezar dezala erkidegoko kudeaketako proiektuetara bidera daitezkeen baliabideen –espazio publikoen– udal inbentario bat.

3. Donostiako Udalbatzarrak eskatzen dio udal Gobernuari, ipin ditzala martxan herritarrentzako eskolak erkidegoaren ekimenak sustatzeko.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

2. El pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a establecer un inventario municipal de recursos (espacios públicos) que puedan ser destinados a proyectos de gestión comunitaria.

3. El pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a poner en marcha escuelas de ciudadanía para el fomento de iniciativas comunitarias.

Donostia a 15 de Marzo de 2019

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Naiara Sampedro Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte y D.ª Naiara Sampedro Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

---------------

**II.1.22. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, bizikletaren erabilera sustatzeari buruzkoa.**

**II.1.22. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre el fomento del uso de la bicicleta.**

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok honako KONTROL MOZIO hau aurkeztu du Udalbatzako Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta. Mozio hori hilabete honetan GUNE PUBLIKO, OBRA ETA HIRI ZERBITZUEN Batzordean hirian bizikletaren erabilera sustatzearen inguruko informazioari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Duela gutxi aurkeztu da hirian bizikletaren segurtasunari buruzko ikerketa bat. Bertan, UPV/EHUko Antropologiako ikasleek ondorioztatu zuten sustatzen jarraitu behar dela hiriko mugikortasun mota guztien arteko bizikidetza.

Horrez gain, ikerketa horrek adierazi zuen bizikleta erabiltzea sustatzen duten neurriak ezartzea garrantzitsua dela. Hartara, ezinbestekotzat jotzen da hiria bizikletarekiko adeitsua bihurtuko duten neurriak hartzea; izan ere, UPV/EHUko ikerketaren arabera, gaur egun hiria bizikletaren aurkakoa da.

Hala, hirian bizikletaren erabilera hobetu eta sustatzeko lehentasunezko kontsideratzen ditugun bi lan ildo planteatzen ditugu: alde batetik, hirian bizikleta erabiltzea erraztea, eta, bestetik, bizikleta gaur egun udal-mugartean dauden mugikortasun moten artean gehitzea.

Aintzat hartu behar da azken urteotan turismoa hiriko ekonomia jarduera nagusi bihurtu dela. Hilabete honetako batzordearen osoko bilkuran planteatu genuen zein garrantzitsua den aurrerapausoak ematea bisitatzen

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS del presente mes, sobre la información relativa al fomento del uso de la bicicleta en la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

Recientemente se presentaba un estudio relativo a la seguridad en la bicicleta en la ciudad, donde alumnado de Antropología de la UPV planteaban como conclusión la necesidad de seguir impulsando la convivencia entre todas las movilidades en la ciudad.

Del citado estudio, igualmente, se reconoce la importancia de implementar medidas que favorezcan el uso de este medio, para lo que se considera imprescindible que la ciudad tome medidas para que resulte amable para este medio, ya que actualmente según el estudio de la UPV la ciudad resulta hostil a la bicicleta.

De tal modo, que planteamos dos líneas de trabajo que entendemos prioritarias a la hora de mejorar y fomentar el uso de la bicicleta en la ciudad. Por un lado, facilitar el uso de la bicicleta en la ciudad y por otro el relativo a la inclusión de la bicicleta dentro de las diferentes movilidades que hoy día se dan en el término municipal.

Teniendo en cuenta que la ciudad en los últimos años ha visto que el turismo se convierte en la principal actividad económica de la ciudad. En la comisión de pleno de este mes, planteamos la necesidad de avanzar en

gaituzten pertsonek hirian mugitzeko garraiobide gisa bizikleta erabiltzeko sustapenean. Kontuan hartu beharreko datu oso garrantzitsu bat da herrialde askotan, batez ere Europan, bizikleta erabiltzen dela mugikortasun elementu nagusi gisa, eta, turista horiek beren jatorriko herrialdeetan tradizio handia dutenez garraiobide hori erabiltzeko, gure hirira iristen direnean ere bizikleta erabiltzeko aukera eskatzen dutela.

Horregatik guztiagatik aurkeztu dugu honako

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio eskuragarri jartzeko bidegorri sareari buruzko informazio liburuxkak hiriko Dbizi geltoki guztietan.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donosia udal taldeko zinegotzia”.

el fomento del uso de la bicicleta como medio de transporte entre las personas que nos visitan. Un dato muy importante a tener en cuenta es el relativo a la gran tradición que en muchos países fundamentalmente europeos en el uso de la bicicleta como elemento principal en la movilidad y que esos turistas que en sus países de origen tienen una gran tradición de uso de este medio de transporte, al llegar a nuestra ciudad también demandan su uso.

Es por ello, por lo que presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a incorporar folletos informativos de la red de bidegorris en todas las estaciones de Dbizi de la ciudad.

Donostia a 15 de Marzo de 2019

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (6) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (6) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.1.23. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, usoen kudeaketa planari buruzkoa.**

“Loïc Alejandro Irabazi Donostia udal taldeko zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkeztu du Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri hartuta. Mozio hori hilabete honetako LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO Batzordean usoen populazioaren kudeaketa planari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilean hainbat galdera egin genituen idatziz hiriko usoak kontrolatzeko neurriei buruz. Hainbat alderdi azpimarratu nahiko genituzke gobernuak emandako erantzunen artean:

• Uso asko sakrifikatzen dira aurkeztutako kexengatik: 1.100 urtean, batez beste.

• Ez dago hiriko uso kopuruari buruzko estimazio fidagarririk.

• Baztertu egin dira jaiotza tasa pentsu espezifikoen bitartez kontrolatzean oinarritutako neurriak, arrazoi teknikoak eta legalak direla bide.

• Sakrifizioaz eta disuasio metodoez haratago (eztenak, sareak, etab.), ez dago usoen kudeaketa planik.

**II.1.23. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, relativa al Plan de Gestión de la población de palomas.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO de este mes, relativa al Plan de Gestión de la población de palomas.

JUSTIFICACIÓN

En enero hicimos preguntas por escrito sobre las medidas de control de las palomas en la ciudad. De las respuestas que nos dio el Gobierno resaltamos varios aspectos:

• Son muchas las palomas sacrificadas por quejas: una media de 1100 cada año.

• No existe una estimación fiable de la cantidad de palomas en la ciudad.

• Se han descartado las soluciones basadas en el control de la natalidad con pienso específico, por razones técnicas y legales.

• No hay un plan de gestión de las palomas, más allá del sacrificio y los métodos de disuasión como pinchos, redes, …

Momentuz, Donostian daukaguna kontrol plan bat da. Uste dugu beharrezkoa dela kudeaketa plan bat egitea, barne hartuko dituena, besteak beste, uso kopurua, populazioaren egoera eta dinamika, elikadura zentroak eta lo egiteko tokiak, eta jasotako kexa motak. Datu horiek programa parte-hartzaile batekin uztar daitezke herritarrak usoentzako elikagai eta aterpe kopurua murrizteko neurrietan inplikatze aldera; izan ere, hainbat ikerketaren bitartez demostratu da harrapaketak ez direla eraginkorrak, eta usoak antzutzen dituzten pentsuek ere beste eragozpen batzuk dituztela.

Gasteizen sakrifiziorik ez egitea lortu dute usoen kudeaketari dagokionez. Donostian helburu bera lor genezake kudeaketa plan bat aplikatuta.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzarrak udal Gobernuari eskatzen dio hiriko usoen kudeaketa plan bat egin dezala.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donosia udal taldeko zinegotzia”.

De momento, lo que tenemos en Donostia es un Plan de Control. Consideramos que hace falta hacer un Plan de Gestión que contemple por ejemplo, un estudio sobre el número de palomas, el estado y la dinámica de su población, los centros de alimentación y dormideros, los tipos de quejas, ... Y asociarlo a un programa participativo con el objetivo de implicar a la ciudadanía en las medidas de reducción de alimento y refugios (existen estudios que demuestran que las capturas no son efectivas, y el uso de piensos esterilizantes no está exento de problemas).

En Vitoria-Gasteiz han conseguido llegar al sacrificio cero en materia de gestión de las palomas. Con un Plan de Gestión en Donostia se podría alcanzar el mismo objetivo.

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar un Plan de Gestión de las palomas en la ciudad.

Donostia a 15 de Marzo de 2019

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak eta Ane Oyarbide Ochoa andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea y D.ª Ane Oyarbide Ochoa, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO LAURAK ETA HAMAHIRUAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECISÉIS HORAS Y TRECE MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**